

131/14 EBAZPENA, MARTXOAREN 17KOA, DONOSTIA UNIBERTSITATE OSPITALEKO ZUZENDARI GERENTEARENA. HONEN BIDEZ, LAU URTERAKO IZENDATU DA, ALDI BATERAKO, LUZATZEKO AUKERAREKIN, MIGUEL ANGEL URTASUN OCARIZ JAUNA OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO DONOSTIA UNIBERTSITATE OSPITALEKO ATAL SANITARIOKO BURU, ESPEZIALITATE HONETAN: NEUROLOGIA.

Otsailaren 6ko 77/14 Ebazpenaren bitartez, deialdia egin zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostia Unibertsitate Ospitaleko atal sanitarioko buru lanpostua lehiaketa bidez betetzeko, espezialitate honetan: neurologia.

Epaimahai kalifikatzaileak aurkeztutako eskabideak baloratu ditu, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, eta Miguel Angel URTASUN OCARIZ jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, zera erabaki da: pertsona hori izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostia Unibertsitate Ospitaleko atal sanitarioko buru, espezialitate honetan: neurologia.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. Artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetza-ren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat, zera

EBATZI DUT

Lehen.- Miguel Angel URTASUN OCARIZ jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostia Unibertsitate Ospitaleko atal sanitarioko buru izendatzea aldi baterako, espezialitate honetan: neurologia.

Bigarren.- Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, eta aldi baterakoa izango da luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko hirugarren arau komunean ezarritakoarekin bat, eta ondorioetarako data hau izango da: 2014ko martxoaren 17a.

Hirugarrena.- Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du postua, ezpada luzapena onartzen, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko hirugarren arau komunean ezarritakoarekin bat etorritik.

RESOLUCIÓN 131/14, DE 17 DE MARZO, DEL DIRECTOR GERENTE DEL HOSPITAL UNIVERSITARIO DONOSTIA, POR LA QUE SE NOMBRA TEMPORALMENTE, POR UN PLAZO DE CUATRO AÑOS PRORROGABLES A DN. MIGUEL ANGEL URTASUN OCARIZ JEFE DE SECCIÓN SANITARIO DE NEUROLOGIA EN HOSPITAL UNIVERSITARIO DONOSTIA DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD.

Mediante Resolución 77/14 de 6 de febrero se convocó la provisión, mediante concurso, de un puesto de Jefe de Sección Sanitario de Neurología en Hospital Universitario Donostia de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Efectuada por el tribunal calificador la valoración de las solicitudes presentadas así como la correspondiente propuesta de nombramiento, y a la vista de los conocimientos académicos y profesionales que concurren en Dn. Miguel Ángel URTASUN OCARIZ procede efectuar su nombramiento para ocupar el puesto de Jefe de Sección Sanitario de Neurología en Hospital Universitario Donostia de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 28 Norma Común Tercera de la Ley 8/1997 de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, en el Decreto 186/2005, de 19 de julio, por el que se regulan los puestos funcionales de Osakidetza, y en el Decreto 255/1997 de 11 de noviembre,

RESUELVO

Primero.- Nombrar temporalmente a Dn. Miguel Ángel URTASUN OCARIZ Jefe de Sección Sanitario de Neurología en Hospital Universitario Donostia de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Segundo.- El presente nombramiento, que tendrá carácter temporal por un plazo de cuatro años prorrogables en función de lo establecido en la Norma Común Tercera del Artículo 28 de la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, surtirá efectos el día 17 de marzo de 2014.

Tercero.- El nombrado cesará al vencimiento del plazo del nombramiento, salvo que proceda la circunstancia de prórroga, de conformidad con lo previsto en el precitado Artículo 28 de la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi.



Laugarrena.- Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik, aldeztu aurretik kontrako espediente dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28.artikuluko 6.atalean aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.- Ebazpen hau interesdunari eta Donostia Unibertsitate Ospitaleari jakinaraztea.

Seigarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen honi dagokion iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Cuarto.- Asimismo, podrá ser removido con anterioridad al vencimiento del plazo de nombramiento en vigor, previo expediente contradictorio y por las causas de traslado previstas en el apartado 6 del Artículo 28 de la Ley 8/1997, de 26 de junio.

Quinto.- Notifíquese la presente resolución al interesado y al Hospital Universitario Donostia.


Sexto.- Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada, ante el Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del siguiente al de la publicación de su Anuncio en el BOPV.

Donostia, 2014ko martxoaren 17

San Sebastián, 17 de marzo de 2014

ZUZENDARI GERENTEA / DIRECTOR GERENTE

E.: Pertsonaleko zuzendari ~~jauña~~ / P.D. El Director de Personal
(80/2013 Ebazpena, martxoaren 11koa) / (Resolución 80/2013 de 11 de marzo)


Osakidetza
DONOSTIA UNIBERTSITATE OSPITALEA
HOSPITAL UNIVERSITARIO DONOSTIA
PERTSONALEKO ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE PERSONAL
LA PUENTE PAGOLA